

Sakanako uharte

Etxarri-Aranatz ingurua da Sakana bailarako alderik euskaldunena. XX. mendean jasandako hizkuntzaren ordezkatzeko prozesua iraultzea lortu du eskualdeak. Euskararen egoerari buruzko datuak ez dira onak, ordea. Lan handia aurreikusten da euskararen normalizaziora iristeko.

SAIOA LABAKA

SAKANAKO ESKUALDEA Nafarroako ipar-mendebaldean dago, Aralar eta Andia-Urbaşa mendien arteko magalean. Mendilerrotik mendilerroa, ipar-hegoa norabidea dute hango udalerriek. Hamabost udalez osatua dago bailara, eta hiru azpi-eskualdetan banatuta daude: Arakil –Irurtzun, Arakil, Irañeta, Uharte Arakil, Lakuntza, Arruazu–, Aranatz –Ergoiena, Arbizu, Etxarri-Aranatz– eta Burunda –Bakaiku, Iturmendi, Urdiain, Altsasu, Olazti eta Ziordia–. Banaketa hori historikoa da, eta ez du eragin administratiborik. Dena den, azpi-eskualde bakoitzean zerbitzu gehienak biltzen dituen gune bat dago: Altsasu (Burundan), Etxarri-Aranatz (Aranatzen) eta Irurtzun (Arakilen).

Sakanako Mankomunitatea da bailarako euskara normalizatzeko tresna instituzional garrantzitsua. Hango Euskara Zerbitzuak dituen azken datuen arabera, 2001ekoak, hain zuzen, Sakanako biztanleen %37 dira euskaldunak. Aurreko urteetako datuekin erkatuz gero, euskaldunen kopurua bere hartan mantendu da azkeneko urteotan; handitu gabe, ordea. Aranatz eskualdea –Ergoiena, Arbizu eta Etxarri-Aranatz– da bailarako euskaldunena. Etxarri-Aranatz da eskualdeko gunerik jendetsuena, eta hango biztanleen %73,6k dakite euskaraz, 2001eko datuei erreparaturaz gero. Euskaldunen kopuruak behera egin du udalerrian, 1996an %79,5ek baitzekiten. Bidenabar, euskaldunen kopuru absolutua ere jaitsi egin da. Datu hauek kezkarriak dira Sakanako Mankomunitatearen ikuspegitik. Besteak beste, Etxarri-Aranatzko Udala UEMAn dago, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean, euska-



Etxarri-Aranatz da Aranatz eskualdeko udalerri jendetsuena. Biztanleen %73,6k daki euskaraz, 2001eko datuen arabera.

rak beharrezkoa duen gune euskaldun batean; eta Mankomunitateari larria iruditzen zaio UEMako herrietan, Arbizun eta Urdiainen gertatu bezala, euskararen ezagutzak behera egin izana.

Euskara %51,5ek erabiltzen dute Etxarri-Aranatzen, 2006ko kalendariketatik ateratako datuen arabera. Adin tarteak aztertuz gero, helduak dira euskara gutxien erabiltzen dutenak, hain zuzen ere, pisu soziolinguistiko handiena duen taldea. Bestalde, haurrak eta gazteak dira euskara ahotan gehien darabiltenak; %56,4k eta %69,2k erabiltzen dute, hurrenez hurren. Haurren presentziak euskararen erabileran eragin nabarmena du udalerrian, eta tendentzia hau orokorra da, Sakanan ere hala gertatzen baita.

Hizkuntza baten egoeraren berri jakiteko, motibazioa ere aztergai izan ohi da. Oraingoz, Sakanan ez

da ikerketarik egin euskararen inguruan dauden jarrerak aztertzeko. Dena den, 2006ko Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, Nafarroako eremu euskalduneko biztanle gehienak daude euskararen irakaskuntza eta erabilera bultzatzeari alde (%73,6), eta gutxi dira aurka daudenak (%8,2).

Miquel Gros i Lladós soziolinguista katalanak *Recuperación del euskera en Navarra* liburuan Etxarri-Aranatz inguruko euskararen egoera bitxitat jotzen du. Egileak azaltzen du hizkuntzaren galtze prozesuetan mailaketak egoten diren arren atzerapena progresiboa izaten dela beti: hegoaldeak iparraldera eta ekialdetik mendebaldera. Zentzu honetan, Aranatz aldea, Sakana erdialdea, uharte bat dela dio. Egilearen arabera, ez da erraz ulertzen nola eutsi dion eskualdeak Burundatik (mendebaldetik) eta Arakiltik (ekialdetik) datorkion erdal-

duntzeari, datuek erakusten duten bezala. Esaterako, Ziordian %26k dakite euskaraz eta Arakilen %19,4k. Hizkuntza fideltasunaren adibide garbia dela dio Aranatz aldea. Grosen arabera, hizkuntzaren ordezkatzeko prozesua 1986an hasi zen eskualdean. Urte horretan euskaldunak %82,1 ziren eta 1991n berriz, %73,9. Alabaina, eskolatze datuek erakusten dute joerari buelta eman diotela.

Hezkuntzaren bidea

Sakana

Euskarazko hezkuntza izan da azkeneko urteotan sakandarren euskarazko gaitasunean eragina izan duten faktore garrantzitsuenetakotzat. Derrigorrezko hezkuntza arautuari dagokionez, Sakanan A eta D ereduak baino ez dira eskaintzen. Aztertu diren azken datuen arabera, 2003/2004 ikasturtean, D eredu-
duan ikasleen %72,3 zeuden, eta A eredu-
an, berriz, %27,7. Sakanako Mankomunitatearen arabera, ez da A eredu-
a desagertze-
ko joera indartsurik nabari. Horretaz gain, heziketa zikloetan ez dagoela hiz-
kuntz eredurik ere gaineratu dute. Helduen euskalduntze-
alfabetatze-
ari dagokionez, hiru euskaltegi daude Sakanan: AEK-ko Itsasi euskaltegia; UGTren Constantino Salinas euskaltegia eta Itasaki akademia pribatua. Oro har, 150 ikasle inguru izaten dituzte urtean.

Altsas
Olatzagutia
Ziordia

Gros i Lladó
geratutako
mendebalde
dago, udale

Euskara bizitza sozialean


Sakana bailarako udaletako funtzio-
namenduan gaztelania da nagusi.

Euskararen ezagutza			
	1991	1996	2001
Etxarri-Aranatz	% 73,9	% 79,5	% 73,6
Sakana	% 35,4	% 36,5	% 37,00

Euskararen kaleko erabilera (2001)		
	Hiztun kopurua	Erabilera ehunekotan
Etxarri-Aranatz	338	% 56,2
Sakana	3.574	% 20,7

Euskararen kaleko erabilera, adina kontuan hartuta (2001)				
	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Etxarri-Aranatz	% 67,0	% 79,5	% 36,0	% 44,4
Sakana	% 23,1	% 22,6	% 16,9	% 22,2

UEMAko udaletan –Etxarri-Aranatzen, Arbizun eta Urdiainen– izan ezik. Oro har, idatzizko dokumentaziorik oinarritzkoena baino ez zaie iristen herritarrei euskaraz



Gros i Lladós ikerlariaren ustez bitxia da Etxarri-Aranatzen gertatutakoa. Hizkuntza hegoaldetik iparrera eta ekialdetik mendebaldera galtzen da. Etxarri-Aranatz Sakanako erdialdean dago, udalerri erdaldunetz inguratuta.

edota bi hizkuntzetan, eta ahozko zerbitzuetan euskara ez dago erabat bermatua.

Zerbitzuei dagokienez, euskararen presentzia txikia da merkataritzako elementu agerikoetan. Orain dela gutxi landu da eremu hau paisaia linguistikoa euskalduntzeko kanpainaren bitartez. Sakanako

	Mankomunitatea Kontseiluarekin ari da elkarlanean, eta Bai Euskarari Akordioaren Plan Estrategikoaren sektoreetako batzuk dira establezimendu komertzialak eta lan mundua euskalduntzea, besteak beste. Aisialdiko ekintzei dagokienez, helduentzako eskaintza erdalduna da, oro har. Bestalde, egoera hobea da haurrentzat eta gazte- txoentzat. Antolatzen diren ekitaldiak gero eta gehiago euskarazkoak dira, eta gero eta begirale euskaldun gehiago dago eskolaz kanpoko jardueratan.
2001	
% 73,6	
% 37,00	
hunekotan	
6,2	
0,7	
ra (2001)	
Adinekoak	
% 44,4	
% 22,2	

Sakanako informazioa euskaraz jasotzen duen idatzizko komunikabidea *Guaixe* da. 2003. urtean sortu zen, eta 4.500 ale banatzen dituzte astean doan. 2007an Belexe irratia sortu zen eskualdeko hizkuntza gabeziari erantzuteko asmoz. Goizez izaten dira irratsaioak, Nafarroako mendialdeko beste irratiekin koordinaturik. Bi komunikabide horiek Bierrik elkar- tearen ekimenez plazaratzen dira. Elkar tearen helburua euskarazko hedabideak uztartu eta bultzatzea eta euskal kultura sustatzea da nagusiki. Eskualdeaz gaindiko informazioa jasotzen duten komunikabideei

dagokienez, sakandarrek gehien kontsumitzen dituzten komunika-
bideak, alde handiarekin, gaztela-
niazkoak dira. Sakanako Mankomu-
nitatearen iritziz, komunikabideak,
gure bizimoduan duten eragin han-
dia ikusirik, estrategikoak dira eus-
kara normalizatzeko. ■

Babeslea: Errenteriako Euskara Zerbitzua